



# 1. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA AZTERKETA IDATZIA

1. ABIZENA _____	2. ABIZENA _____
IZENA _____	NORTASUN-AGIRIA _____
LANTOKIA _____	KATEGORIA _____
AZTERKETA-EGUNA _____	AZTERKETA-TOKIA _____



## ARGIBIDEAK

- Azterketa idatziak bi ariketa ditu: irakurmenekoa eta idazmenekoa. Bi ariketa hauek egiteko **ordubete eta 20 minutu** izango dituzu.
- Irakur itzazu ariketa bakoitzaren hasieran datozen argibideak.
- Ariketak boligrafoz egin behar dira. Saia zaitetz letra txukuna egiten.



## 1. IRAKURMENA

**Ariketa-mota:** EGIA ala GEZURRA

**Nola egin:**

- Behean testu bat daukazu eta jarraian testu horri buruzko ariketa.
  - Ariketa egiten hasi aurretik, testua arretaz irakurtzea gomendatzen dizugu.
  - **Ariketa-orrian** datozen esaldiak egia ala gezurra diren markatu behar duzu **erantzun-orrian**.
- Ariketa hau gainditzeko, 7 egin behar dituzu ondo.

## LEGENARRA EDO LEpra ORAINDIK EZ DA DESAGERTU

Txinan, Egipton eta Indian duela mila urte baino gehiago eman zuten legenarraren berri. Mendeetan gaixotasun misteriotutzat hartu izan da eta madarikazioekin lotuta egon da. Hori dela eta, **legenardunak** baztertu eta aparte uzten zituzten.

Duela 100 urte inguru, Armauer Hansen norvegiarrak legenarra zerk sortzen zuen aurkitu zuen: *Mycobacterium leprae* bakterioak. Gizakiak ordudanik badaki legenarra gaixotasun infekzioso dela, eta ez duela zerikusirik madarikazioekin eta sorginkeria-kontuekin. Hala ere, hainbat jendek legenarra madarikazioarekin lotzen du oraindik. Toki askotan legenardunak baztertuta daude, ez dira osasun-etxeetara hurbiltzen, eta, ondorioz, ez dute tratamendurik hartzen.

**legenardun:** leproso



Oraindik ez dakite nola transmititzen den legenarra. Hala ere, uste da legenarraren bakterioa sudurretik, ahotik eta azaletik sartzen dela gorputzean. Toki batean jende gehiegi bizi izateak, elikadura eskasak eta higiene-ohitura txarrek gaixotasuna zabaltzen laguntzen omen dute. Datuek diotenez, bakterioarekin harremanetan dagoen hamar lagunetik bat baino ez da kutsatzen. Kutsatzeko, gainera, harreman horrek luzarokoa izan behar du.

Sintomak infekzioa gertatu eta askoz geroago agertzen dira. Gehienetan, lehen sintoma minik eza izaten da; hau da, erreduraren bat edo zauritxoren bat eginez gero, minik ez sentitzea. **Sentikortasuna** galtzen duen tokian azala kolorez aldatzen da denborarekin. Beste askotan, gihar edo muskuluetako paralisiak gertatzen dira, edo eskuetako eta oinetako hezurak ahuldu eta apurtzen hasten dira. Gaixotasunak aurrera egin ahala, kopeta handitu eta aurpegiaren itxura aldatzen da.

Gaur egun, legenarraren aurkako tratamendu egokiak daude, eta gaixotasuna sendatu egin daiteke. Horregatik, herrialde aberatsetan legenarra ia desagertutzat jo dezakegu. Dena den, legenarra mundu osoan dago zabalduta. Kasu gehienak pobrezia handiko eta garbitasun eskaseko tokietan agertzen dira. Gaixoen %70 Asiako Hego-ekialdean bizi dira, Indian, Indonesian eta Birmanian.

Gaixotasun hau apurka-apurka gutxitu egin da: 1980an 12 milioi gaixo zeuden, 1985ean 4 milioi, 1994an 2,5 milioi, eta gaur egun 750.000. Legenarraren aurkako lanak emaitza onak eman ditu. Datuek horixe erakusten dute.

Dena den, tratamendu egokia hartuta sendatzeko moduko gaixotasuna izanik, zergatik ez da desagertu? Dударik gabe, aberatson elkartasun-faltari bota behar zaio errua, legenarra indartsu dagoen tokietan pobrezia baita nagusi.

**sentikortasun:** sensibilidad

*eitb.com (Teknopolis), 2002-01-27*  
Egokitua



## 1.1. ARIKETA-ORRIA

EGIA ala GEZURRA?

1. Orain dela mila urte, Txinan, Egipton eta Indian legenardunak ez zeuden baztertuta.
2. Legenardun guztiek hartzen dute tratamendua, gaur egun.
3. Legenarraren lehen sintoma sentikortasunaren galera izaten da gehienetan.
4. Armauer Hansen norvegiarrak legenarra sortzen duen birusa aurkitu zuen duela bi mende.
5. Gaur egun inork ez du legenarra madarikazioarekin lotzen.
6. Legenarraren sintomak infekzioa gertatu eta denbora gutxira hasten dira.
7. Legenardunak asko gutxitu dira azken 25 urteetan.
8. Gaur egun legenarra mundu osoan zabaldua dago.
9. Legenardunen kopurua ez da milioi batera iristen gaur egun.
10. Tratamenduek ez dute legenarra gutxitzea lortu herrialde pobreetan.



## 1.2. ZUZENKETA-ORRIA —

**Irakurgaia:** "LEGENARRA EDO LEPPRA ORAINDIK EZ DA DESAGERTU"

**Ariketa-mota:** EGIA ala GEZURRA

**Baremoa:** Ariketa hau gainditzeko, 7 egin behar dira ondo.

### ERANTZUN ZUZENAK

1	<b>G</b>	6	<b>G</b>
2	<b>G</b>	7	<b>E</b>
3	<b>E</b>	8	<b>E</b>
4	<b>G</b>	9	<b>E</b>
5	<b>G</b>	10	<b>G</b>



## 2. IDAZMENA

**Egitekoa:** INPRIMAKIA BETETZEA

**Oharrak:**

- Hurrengo orrialdeko inprimakia bete behar duzu.
- Saiatu letra garbia eta txukuna egiten. Boligrafoz idatzi behar duzu.

**GAIA:** Zure umea igeriketa-ikastaro bat egiteko apuntatu zenuen. Baina hasteko astebete falta denean, konturatu zara ezingo duela egin. Idatzi Kirol Patronatuko zuzendariari ikastaroa ez egiteko arrazoiak azaltzeko, eta eskatu matrikula-dirua itzultzeko.

**Oharra:** *Kontuan izan ez duzula eskutitza idatzi behar. Hurrengo orrialdeko inprimakia bete behar duzu.*

